HEMEROTEKA EZAGUTU

EHU | ehuBiblioteka

Liburutegi nagusiko hirugarren solairuan, Leioan..



ORDUTEGIA: 8:15 – 20:30

EZAGUTU GURE HEMEROTEKA.
Liburutegi nagusiko 3. solairuan

EHU-KO UNIBERTSITATE-KOMUNITATEA

1



ARTIKULUEN ESKAERA

2



KONTSULTAK ARETOAN

3



LANPOSTUEN ERRESERBAK
Prentsa digitalizatua

4



PRESTAKUNTZA
Bisita gidatuak eta taldeko lanak

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

ehuBiblioteka







ZERBITZU KARTA







1 KONTSULTAK ARETOAN:

EHUko hemerotekak publiko orokorraren esku jartzen du funts hauek kontsultatzea:

- Harpidetza bidezko prentsa (2018etik gaur egun artekoa), 2010. urtetik aurrerako aldizkariak, eranskin bereziak eta prentsa urtekariak: EZ da beharrezkoa aurretik hitzordurik eskatzea.

- Aipatu datak baino lehenagoko materiala kontsultatzeko: egun bat lehenago eskatu behar da hitzordua, INPRIMAKI baten bidez.

Aretoan eskatutako materiala prestatu ondoren, telefonoz edo posta elektronikoz abisatuko da kontsulta egitera etortzeko.

2 PRENTSAN EDO ALDIZKARIETAN ARGITARATUTAKO ARTIKULUAK DIGITALIZATZEKO ESKAERA:

- **Unibertsitateko kide bazara:** Eskaera egiteko, eskabide-orria bete behar da, ahalik eta datu gehien emanda.

- **Kanpoko erabiltzailea bazara:** Funtsak *in situ* kontsultatuko dira, aurrez aurre, Hemerotekan. Posible ez bada, jarri Hemerotekarekin harremanetan, eskaeraren arrazoia zehatz adierazita, arduradunak balorazioa egin ahal izan dezan.

Bi kasuetan:

- Aldez aurretik, Liburutegiko Discovery katalogoaren bidez egiaztatu beharko da eskatutako baliabidea eskuragarri dagoela eta ez dagoela artikuluaren online bertsiorako sarbiderik.







ZERBITZU KARTA







3 PRENTSA DIGITALIZATUA KONTSULTATZEKO POSTUAK ERRESERBATZEA:

- Hemerotekak Euskal Herriko prentsa digitalizatuaren funtsa ere jartzen du erabiltzailearen esku (1977. urtetik aurrerakoa, komunikabidearen arabera), baita bestelako datu baseak eta komunikabide jakin batzuen harpidetzak ere.

- Horiek guztiak **aurrez aurre** soilik kontsulta daitezke; horretarako, komeni da Hemerotekarekin harremanetan jartzea eta kontsulta postuan **ordua erreserbatzea**.

4 PRESTAKUNTZA:

- **Bisita gidatuak**: seihileko bakoitzaren hasieran taldekako bisita gidatuak eskainiko dira Hemerotekan (30').
- **Prestakuntza ikastaroak**: prentsan eta datu base espezializatuetan bilaketa bibliografikoak egiteko orientazioa eta prestakuntza eskaintzen ditu hemerotekak.
- **Taldeko lanak**: graduko ikasleei laguntza eskainiko zaie hemerotekako baliabideak oinarri dituzten irakasgaien programazioan.
- Prestakuntza eskaerak Hemeroteka Zerbitzuko langileekin koordinatu beharko dira aldez aurretik.

HARREMANETARAKO DATUAK:

Zalantzarik izanez gero, Hemerotekara bertaratu baino lehen gurekin harremanetan jartzea gomendatzen dizugu, dela telefonoz, dela posta elektronikoz:

hemeroteca.bib-le-bi@ehu.eus / Tfno. Zk.: 94 601 5118 - 94 601 2210